

Sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*)



Sasiakazia jatorriz Estatu Batuetakoa den hosto erorkorreko zuhaitz bat da. Hosto konposatuak ditu, hostoxka obalatuekin, eta adarretan oso bereizgarriak suertatzen diren arantza handi eta gogorrak izaten ditu. Udaberrian lore txuri deigarriak izan ohi dituzte eta hauetatik, haziak gordetzen dituzten leka marroi luzeak garatzen zaizkie. Sasiakaziaren zenbait ezaugarri oso erabilgarria egiten dute jarduera jakin batzuetarako. Alde batetik, bere egurra oso gogorra denez, zenbait aplikazioetarako oso aproposa da, itxituretako hesolak egiteko, adibidez. Bestetik, apirila eta ekain artean loraldi emankorrak ditu eta oso bereizgarri egiten duten lore luku txuri ugari eman ohi ditu. Horregatik, polinizatzaileen ikuspegitik ere interes handia pizten du, eztingileen artean, kasu.

Landare hau hazien bidez ugaltzeaz gain, sustrai sistemaren bidez ere ernaberritu eta zabaltzen da. Ezaugarri horiei esker, bertako landarediari lekua kendu eta desplazatzeko gaitasuna dauka eta baso-habitatak eralda ditzake. Bere izaera inbaditzailea nabarmena izan arren, egurraren ustiaketaren ikuspegitik interesa duenez, arrazoi sozioekonomikoak argudiatuz, bere landaketa, produkzioa eta salerosketa legezkoak dira oraindik ere. Honen erauzketa ez da batere erraza, moztu ondoren, ernaberritze oso azkarra eta indartsua izan ohi duelako. Horregatik, zenbait kasutan sasiakazia aleak buelta guztian zurtzea irtenbide eraginkorragoa suerta liteke. Dena den, normalean tratamendu mekanikoak behin eta berriz errepikatzea beharrezkoa izaten da landare hau erabat desagerrarazteko. Kasu batzuetan, tratamendu kimikoak erabiltzea ere lagungarria suerta daiteke.

Oharra: Zure lursail batean espezie hau identifikatu baduzu eta berau erauzteko informazio gehigarria edo laguntza beharko bazenu, jarri udalarekin harremanetan.

Tximeleta zuhaitza (*Buddleja davidii*)



Jatorriz Txinako landare bat da baina lorategietan apaingarri gisa erabiltzeko helburuarekin ekarri zen gure lurraldera, munduko beste hainbat lekutara bezalaxe. 4 metroko altuera izan dezaken sastraka hosto-erorkor bat da eta ekaina eta azaroa artean loratzen da. Lukutan taldekatutako lore txiki arrosa ugariak izaten ditu, oso deigarri eta politak. Hazi txiki ugari ematen ditu eta hauen hedapenetik zabaltzen da, batez ere.

Mozketak edota hostotzaren kaltetzeen ondoren, oso erraz ernaberritzen da eta hazkuntza azkar eta indartsua dauka.

Tximeleta zuhaitzak bertako landareekin lehiatzen du eta hauek desplazatzeko gaitasuna dauka. Horregatik, estatuko katalogoetan landare exotiko inbaditzaile gisa izendatuta dago eta, kontrolik gabe zabaltzeko duen gaitasunarengatik, honen erabilpena debekatuta dago. Landare hauek erauzteko metodo mekanikoak erabil daitezke. Horretarako, banako gazteak sustrai eta guzti atera behar dira. Landare handien kasuan, moztu eta ondoren sustrai sistema atera behar izaten da, ernaberritzea ekiditeko. Kimaketa edota mozketa soilek egoera are gehiago okertzea eragin dezakete, izan ere, landarea indar gehiagorekin haztea eragin ohi duelako. Halako gertaerak ekiditeko, eta sustrai-sistema erauzi ezin bada, mozketen ondoren tratamendu kimiko bat aplikatzeak ernaberritzea eten dezake.

Oharra: Zure lursail batean espezie hau identifikatu baduzu eta berau erauzteko informazio gehigarria edo laguntza beharko bazenu, jarri udalarekin harremanetan.

Panpa belarra (*Cortaderia selloana*)



Jatorriz, Hego Amerikako landare bat da. Bere ezaugarriek aproposa egiten dute lorezaintzan apaingarri moduan erabiltzeko eta horregatik mundu osoan zabaldu zen. Diametroan ia 3,5 metro izan ditzaketen landare zabalak izaten dira. Zinta formako hosto mehe eta luzeak ematen ditu eta abuztu erdialdetik aurrera loratzen da. Hain ikusgarria egiten duten motots txuriak dira bere atalik deigarrienak. Loraldi unetik hilabetera haziak sortu eta bideragarri egiten ditu, hauek askatuz hedapena abiarazteko moduan. Hazi askapen handiena urrian izaten da, baina lore mototsek, haziak galdu ondoren ere, luze irauten dute (hurrengo udaberrira arte ia). Azken hauek ia lau metroko altuera izan dezaketen ziri zuzen batzuen puntan hazten dira eta ia 30 cm-ko luzera izan dezakete. Hauen bidez, haizeak erraz zabaltzen dituen hazi ugari sortzen ditu. Espezie hau, gramineoa izanik, uda amaieran gero eta ugariagoak diren alergiak eragin ditzake.

Panpa belarra ingurune anitzetara egokitzen da eta bere hazi arinak haizeak nonahi barreiatzen dituenaz, bertako landarediari lekua kentzeko gaitasuna dauka. Horregatik, estatuko katalogoetan landare exotiko inbaditzaile gisa izendatuta dago eta berau jabetzan izan, garraiatu nahiz salerosteko debekua dago. Honen hedapena eragozteko, loraldiaren ondoren, haziak garatu aurretik hauek moztea lagungarria da. Ekintza mekanikoen bidez landarea moztuz gero, baina sustraiak bere horretan uzten badira, landarea berriz haziko da. Hori kontuan izanda, panpa belarra erauzterako orduan, nahitaezkoa da landarearen lurpeko sustrai sistema osoa ere ondo kentzea. Gerta daiteke, ekintza mekanikoez gain, tratamendu kimikoen beharra ere suertatzea.

Oharra: Zure lursail batean espezie hau identifikatu baduzu eta berau erauzteko informazio gehigarria edo laguntza beharko bazenu, jarri udalarekin harremanetan.